

ditezken arazoak arrotzen ditugun bitartean abagune ederra daukagu elkartasun ori egiteko. Ez da prexio apaiz-elkartasunak eukitzeko kursillo-giroa ematea. Elkartu-nai ori sortzen duana ez dotriñaren falta, adiskidetasunaren eta lankideen urria baiño.

Eta guk adiskidetasun ori ikusi dugu gure artean, biar batean apostolutza lanetarako ainbeste balioko izan dakiguken apaiz-adiskidetasun ori. Ori dugu euskeraren alde lan egiteko biderik jatorrena ere. Amaika saio egin genduan gure arte bitartean asmo-trukatze ortan; eta beste urteetarako bildualdiei olako kutsua nola emango ere ibilli giñan. Erabateko erabakirik ez genduan artu, baiña bai azia erein. Asmatuko dugu datorren urteko billera nola antolatu.

Emen esandakoekin eta 10-11 aietan Arantzazu'bazterretan bisitakoekin atsegiñez gaiñezka utzi genduan billera aren epea; eta gaiñez egindako salda gozo ori, benetakoko apaiz-lagun eta euskalzale batzuk ba-ditugula ari zaigu gure barnean esaten.

Fernando Mendizabal, ofm.  
Arantzazu'ko teologari.

---

"IBINAGABETIA" Jaunaren eskutitza.

YAKIN'eko estabaitak alako min-andi bat eman zidan. Ezin-armonizatuak ote dira gure arteko gora-bera ta liskar amaigabekoak? Noiz begiratu bear ote diogu euskal-idazle gustiok elkarri anaitasunez beterik? Elkarri arrika bizi bear ote dugu beti? GARAKOAK eta bestelakoak, ez ote dugu berdin xamar maitatzen gure euske a errukarri au? Zertako ibilli, beraz, elkar-zematzen espata-apentzaillea gora-goraka jasoaz? Iaso besterik expalitz... Baiña zauri odoltsuak ere irikitzen ditugu gure anai maite euskal-idazleen biotzetan, eta maiz, inoiz osatuko ez diran zauri sakonak. Geok gure burua ito-

tzen... Pekatu aundiagorik egin ote diteke euskera eta aberri maitearen aurka? Ez dut uste. Ala ere ez dut itxaropenik oraindik galdu bide zuzenera etorriko generala noiz-pait, baiña ohe litzake len-bait-len, bestela agur gure urrezko amesa, Jaunak, begietako gandua kenduko al digu, Saul'i bezela, argi ikusi dezagun, elkarrekin leialki, eta adiskidetsuki iardutzeko. Ba-dugu bai euskal ezpata nun sartu, ta sakonki sartu ere, anai-arteon negargarrizko ezpatadantza atergabekoan ibiltzeke...

---

"AITA ONAINDIAREN " eskutitza.

"... Gazteak zerate eta gazteak beti izan oi dira asmotsuak, eta bear...Ala ere, artutako bidez ongi zabilzate ta ekin orrela. Yakin aldizkari ederra da, nire ustez. Idaz lanak, atsegin izatekotan labur eta sakon bitez: ori jakitunentzat duzute, ta orrela egin dezakezute, irizle zorrotzen baldur gabe. Komeni litzake, guztion artean, teologi- ta filosofi-iztegitxo bat osatzea: orretarako, erderaz edo lateraz, izen-zerrenda aundi-aundi bat egin, izen oiek zerbait azaldurik, eta gure ORIXE maixuari bialtzea egoki litzazizuke. Gai oiek, batez ere, filosofi-gaiak, beste iñork baiña obeto ezagutzen gurean, eta apal-apal, eskale antzo, bereganazuzendu ezkeron, nire ustez, ark egingo luke, edo osatuko luke izen-zerrenda ori: Oso lanpetua dabil, baiña gai ori eder zaiona dan ezkeron, egin lukelakotan nago.

Ortarako, adibidez, aurtan lau baten artean leporatu egizute gai oietaz, bai teologi bai filosofi-gaietaz, izen-zerrenda albait osoena egitea. Eta datorren urtean, edo ariñago, amar bateren artean aztertu eta ikusi zerrenda ori, ta ortara aztertuta ikusi ondoren, ORIXE jaunari bialdu. Eta ark onetsitako itzak erabilli gero idaz-lan guztietan. Bestela naspilla aundia sortzen, bakoi-tzak bere bidetik jardun oi dulako. Orrela berriz batasuna lortuko gai garrantzitsu oietan.

Beste urteetan beste edozein gaietaz orobat egin dezakezute: naiz dala gizarte-auzi, naiz elerti, naiz eliz-